- d) Ureter-drainatze gisa

**7. Zein estafilokoko koagulasa-negatibok sortarazten du endokarditisa mota larri bat, estafilokoko aureus-ek sortarazten duenaren antzekoa, zeinak infekzioa eraztun balbularrera zabaldu lezakeen, eta metastasia sortarazi?**

- a) Estafilokoko epidermidisa
- b) Estafilokoko lugdunensisa
- c) Estafilokoko simulansa
- d) Estafilokoko hominisa

**8. Erauzezineko kartzinoma orofaringeoaren berrerritzez (*recidiva*) afektatutako paziente bat askapen atzeratuko morfina ari da hartzen aho bidez, 80 mg-ko dosia 12 orduko, berehalako askapeneko 20mg-ko 2 erreskate erabiliz egunero. Ondo kontrolatzen du mina, baina gehiegizko logura dauka. Disfagia daukanenez gero, zunda nasogastrikoa sartzea erabaki da, eta analgesikoa fentanilo transdermikora aldatzen zaio. Zein izango litzateke dosi egokiena?**

- a) 150 mcg/h (100 mcg-ko partxe 1 + 50 mcg/h-ko partxe 1, hiru egunetik behin)
- b) 125 mcg/h (100 mcg-ko partxe 1 + 25 mcg/h-ko partxe 1, hiru egunetik behin)
- c) 100 mcg/h (100 mcg/h-ko partxe 1, hiru egunetik behin)
- d) 75 mcg/h (75 mcg/h-ko partxe 1, hiru egunetik behin)

**9. Zein dira FDAk baimenduta dauzkan farmakoak infusio intratekalerako?**

- a) Morfina eta baklofena
- b) Hidromorfona eta bupibakaina
- c) Klonidina eta baklofena
- d) Hidromorfona eta klonidina

**10. Osasunaren arloan nork dauka eskubidea bere nahiak/borondateak aurretiaz adierazteko?**

- a) Adinez nagusi den edonork, baldin eta horretarako judizialki ezgaitua izan ez bada
- b) Adinez nagusi ez den edonork, baldin eta gurasoen onespena badauka
- c) Ordezkaririk legalak, ezgaitua izan ez bada
- d) Aurretiazko nahiak/borondateak ezarri behar dituen langile sanitarioak

**11. Borikonazolak dauzkan albo-ondorioen artean, zein da gehien gertatzen dena?**

- a) Toxikodermia
- b) Fototoxizitatea
- c) Alterazioak ikusmenean
- d) Transaminasak igotzea

**12. Wiki izenekoek ondoko ezaugarriak dituzte, hauetako bat izan ezik:**

- a) Iritziak saihestu egiten dira
- b) Bilaketa-mekanismoak dituzte
- c) RSS “gehitzaiak” erabiltzen dituzte, eduki berriak daudela jakinarazteko
- d) “Eztabaida-modu” bat dauka, edukien egileak harremanetan jartzeko

**13. Denak dira Etxeko Nutrizio Parenteralaren indikazioak, hauetako bat izan ezik:**

- a) Gaizki nutritutako pazienteak, digestio-hodira iristeko ezintasuna daukatenak
- b) Mobilitate gastrointestinalaren alterazioa, entzefalomiopatia mitokondrial neurogastrointestinala dela-eta
- c) Heste motzaren sindromea
- d) Abdomeneko barrunbean tumore erauzezinak dauzkaten pazienteak, indikazioaren unean 30 egunetik gorako bizi-itxaropena daukatenak.

**14. Eman dezagun pneumonía pneumokozikoa daukan paziente bat tratatzeko amoxizilina 750mg/8h ari garela erabiltzen, eta eboluzio torpidoa daramala, ondoko zein neurrik ez luke onura terapeutikorik ekarriko?**

- a) Azido klabulanikoarekin batera ematea
- b) Amoxizilinaren dosia igotzea
- c) Zeftriaxonarekin aldatzea
- d) Lebofloxazinoarekin aldatzea

**15. Zer da Osasun Zerbitzu batean Dataware House (DW) ezartzea?**

- a) Maila asistentzialen arteko koordinazio-sistema
- b) Pazienteak etxeko atentzioko programetara bideratzeko jarraipen-sistema
- c) Telemedikuntza asinkronoko sistema
- d) Jatorri desberdinetatik datorren erakunde bateko informazio integratua daukaten datuak biltzen dituen sistema

**16. Zauri bat kronikotzat hartzeko, zenbat hilabete pasatu behar izan ditu orbaindu gabe?**

- a) 3
- b) 2
- c) 4
- d) 6

**17. Bihotz-zirrosiari buruzko baieztapen hauen artean, zein da egia?**

- a) Eskuineko bihotz-gutxiegitasunagatik kongestio pasibo luzeak triada portalen kongestioa eta nekrosia eragiten ditu, eta ondorioz, fibrosia sortzen da
- b) GOT eta GPT kontzentrazioak hepatitis akutuan edo paracetamolagatik intoxikazioan agertzen diren zifra nahiko altuen antzekoak izan litezke
- c) Ikuspegi klinikotik, Budd-Chiari-ren sindromea eta bihotz-zirrosiarena bereiztu ezinak dira
- d) Zirrosiaren arrazoia perikarditis hertsatzailea ote den diagnostikatzeko, ekokardiografia da probarik onena

**18. Eman dezagun 59 urteko gizonezkoa, prostatako abszesua daukana, eta duela 2 hilabete antibiotiko betalaktamikoa hartu duena sinusitisa dela-eta. Zein tratamendu izan liteke gomendagarria holako prozesu batean?**

- a) Zeftriaxona + kloxacilina
- b) Zeftriaxona + linezolid
- c) Ertapenema + daptomizina
- d) Ertapenema + kloxacilina

**19. Komunikazioa oinarritzko tresna terapeutikoa da, ez bakarrik berri txarrak emateko orduan, baita pazientearekin eta bere familiarekin eraman beharreko harreman-prozesuan eta atentzio-prozesuan ere. Aukera ezazu erantzun zuzena:**

- a) Komunikazioaren %60 ahozkoa izaten da
- b) Komunikatzeko gaitasuna dohain bat da; ezin da ikasi
- c) Komunikazioaren oinarritzko helburu bat da pazienteari eta bere familiari euren benetako egoerara egokitzen laguntzea
- d) Komunikazioak lan-taldea/paziente/familia barne hartzen dituen prozesua da; eta lan-talde terapeutikoak ezartzen du informazioa zein erritmotan, zein kopurutan eta nolako sakontasunez eman

**20. Inbasio tumoral edo plexu zerbikalaren konpresioa esfera otorrinolaringologikoaren (ORL) tumore primarioetan edo metastasian ager daiteke. Aukera ezazu erantzun zuzena:**

- a) C-2tik C-5ra arteko nerbio-sustraiei eragiten zaie
- b) Horner-en sindromearekin lotu daiteke
- c) Min zerbikala ematen du; besoetara hedatzen dena
- d) Min zerbikala, eskapulara hedatzen dena

**21. Gizonezko batek, arraza zurikoa, 55 urtekoa, kontsultategira jo du, eta ondokoak dauzka: ahulezia orokorra, pisu-galera, abdomeneko min lauso zehazgabea eta zutitze-disfuntzioa. Azterketa fisikoan ondokoak nabarmendu dira: hepatomegalia, atrofia testikularra eta ginekomastia. Larruazala aztertzean, kolore grisaxka daukala antzematen da, lepoan eta aurpegian nabarmenagoa, eta eskuineko eskuko giltzadura edo artikulazio metakarpofalangiketan, berriz, hantura arina. Zein proba diagnostiko aholkatu behar zaio?**

- a) Ferritina serikoa.
- b) Burdin serikoaren azterketa, transferrinaren saturazioa barne
- c) Burdina kuantifikatzea 24 ordutako gernuan
- d) Azterketa genetikoak, C282Y eta H63D gen-mutazioa bilatzeko

**22. CONUEI adostasun-dokumentuaren arabera A gomendio-gradua izanik, antibiotiko hauen artean zein ez da gomendagarria ultzeren tratamendu topikorako?**

- a) Gentamizina
- b) Azido fusidikoa
- c) Metronidazola
- d) Mupirozina

**23. 61 urteko gizonezko bat, abdomena hazita daukana. Azterketa klinikoan aszitisa aurkitu zaio, eta parazentesia egiten zaio. Laborategiko emaitzak ondokoak dira: 300/MI leukozito %35 polimorfonuklearrekin; 1,2 gr/100ml-ko albumina peritoneala; 2gr/100ml-ko proteina; 320mg/100ml-ko triglizeridoak. Likidoaren kultiboak jakiteko daude. Albuminaren kontzentrazioa serikoa 2,6mg/ml-koa da. Ondokoen artean zein da diagnostiko probableena?**

- a) Bihotz-gutxiegitasun kongestiboa
- b) TBC peritoneala
- c) Kartzinomatosi peritoneala
- d) Aszitis kilosa.

**24. Sendagai hauen artean zeinek areagotzen du bere absortzioa, elikagaiekin batera hartzen bada?**

- a) Anpizilina
- b) Fenitoina
- c) Diazepana
- d) Haloperidola

**25. Sedazio aringarrirako / agoniako sedazioarako baimena eskuratzeko:**

- a) Ez da beharrezkoa familiari azaltzea azken egunetan sartua dela, eta bere heriotza hurbil aurreikusi daitekeela; antsietatea gehitu egiten baitu, eta kalte egiten baitio etxeko zainketari
- b) Beharrezkoa da familiari azaltzea kontzientzia-gutxitzeak irensteko eta ahoz komunikatzeko gaitasunak gutxituko dizkiola, baina, era berean, distressaren hobekuntza ekarriko diola
- c) Beharrezkoa da pazientearen aurrean egotea solasaldian (gauza baldin bada), eta baita ere zaintzailea, familia hurbila eta talde teurapeutikoko partaide gehienak
- d) Zu zeu ziurtasunez azaldu behar duzu sedazioaren eraginari dagokionez; “a priori” baitakizu zein kontzientzia-maila izango den beharrezkoa pazientearen distressa kontrolatzeko

**26. Ondoko guztiak dira gibel-giltzurrunetako sindromearen ezaugarriak, hauetako bat izan ezik:**

- a) Hiponatremia
- b) Gernu-osmolaritatea > osmolaritate plasmatikoa
- c) Proteinuria < 500 mg/eguneko
- d) Na kontzentrazioa gernuan > 10 meq /l

**27. Ondoko bakterioek beherako odoltsua eragiten dute, hauetako batek izan ezik:**

- a) Campylobacterra
- b) Crytosporidiuma
- c) Entoameba
- d) Shigella.

**28. Presioagatiko ultzerari buruzko baieztapen hauen artean, zeinek dauka ebidentzia-maila altua?**

- a) Giro hezeko sendaketak metodo tradizionalak baino eraginkortasun kliniko eta errentagarritasun handiagoa erakutsi du
- b) Kultibo positibo baten aurrean antibiotikoak erabiltzea beharrezkoa izaten da
- c) Lesio sakonak, tunelizatuak edo barrunbeak bete egin behar izaten dira, ez daitezten hutsean itxi edo ez daitezten abzesifikatu
- d) Zauria garbitzeko eta alde perilexional osoa lehertzeko, erabil ezazu ahalik eta indarrik gutxiena, behar den indarra baino ez

**29. Daptomizinari buruz ari garela, zein da faltsua?**

- a) Saihestu egin behar da estatinekin aldi berean erabiltzea
- b) Filtrazio gomerularra (FG) <30 bada, dosi txikiagoetan erabili behar da
- c) Ondoko hauek kaltetzen ditu: muskulu eskeletikoa, miokardioa eta muskulu lisoa
- d) Likido zefalorrakideoaren (LCR) kontzentrazioa < %10-koa dauka serikoan

**30. Ondoko ezaugarrien artean, zein ez da baloratzen Presioagatiko Ultzeren Sendaketaren Eskala Pronostikoan (PUSH)?**

- a) Luzera x zabalera
- b) Sakonera
- c) Exudatu-kopurua
- d) Ehun-mota

**31. Zein da emaile bizidunak izaten duen operazio ondoko arazorik ohikoena estatistikaren arabera?**

- a) Odol-galera
- b) Abdomeneko infekzioa
- c) Behazun-ihesa
- d) Pneumonia nosokomiala

**32. Ondokoen artean zeinek dauka balore ia nulua ultzera bat infektatu gisa sailkatzeko?**

- a) Biopsia
- b) Kultiboa
- c) Exudazio zornetsua egotea
- d) Alboko zonen hantura

**33. Zein da ondokoen artean azido zoledronikoaren (edo zoledronatoaren) eragin bat?**

- a) Osteoklastoen aktibitatea areagotzea
- b) Hezurreko hidroxiapatitaren kristaletara batzea
- c) Prostaglandinen sintesiak gora egitea
- d) Osteoklastoen apoptosiak behera egitea



**34. Zein da bena-ultzeraren tratamendurik onena?**

- a) Alginatoko aposituak
- b) Oinez maiz ibiltzea
- c) Presiozko bendajea
- d) Hidrokoloide-hidrofibrako aposituak

**35. CMV (zitomegalobirus) serologiaren arabera, gibelaren transplantea jasan duenak arrisku handiagoa dauka zitomegalobirusagatiko infekzioa garatzeko, baldin eta...**

- a) Emailea positiboa baldin bada, eta hartzailea negatiboa
- b) Emailea eta hartzailea positiboak baldin badira
- c) Emailea negatiboa baldin bada, eta hartzailea positiboa
- d) Emailea eta hartzailea negatiboak baldin badira

**36. Infektatuta dagoen ultzera batean, bide orokorreko antibioterapiaz gain, ondokoen artean zein erabiliko zenuke, batez ere, sendaketak egiteko?**

- a) Alginatoa
- b) Ikatz-apositua
- c) Silikona-apositua
- d) Zilar-apositua

**37. Eman dezagun gibleko transplantea jasan duen paziente batek Afrikara egin behar duela bidaia. Aukera hauen artean zein dago hertsiki kontraindikaturik?**

- a) Paludismoagatiko profilaxia
- b) Baztangaren (*viruela*) aurkako txertaketa
- c) Txertaketa meningokozikoa
- d) Amorreriaren aurkako txertaketa

**38. Pankreako minbiziari buruz ari garela, zein da egia ondoko baieztapenen artean?**

- a) Bizi-iraupena, 5 urtera, %5 ingurukoa da
- b) Pankreako adenokartzinomak sarriago sortzen dira pankrea-isatsean
- c) Diagnostikoaren bataz besteko adina 49 urtekoa da
- d) Neoplasia hauen arteko mota ohikoena uharte-zelulen tumore bat izaten da

**39. Gibel transplantearen operazio ondokoan, zein izaten da konplikaziorik ohikoena?**

- a) Injertoaren disfuntzio primarioa
- b) Tronbosi portala
- c) Gibel-arteriako tronbosisia
- d) Behazun-bideetako konplikazioak

**40. Zeri esaten diogu desnutrizio larria?**

- a) Egoera patologiko bati, non gorputz-masaren indizea  $< 18,5$ -ekoa izaten den, edo/eta pisua idealarekiko  $< \%75$ ekoa, edo/eta albumina  $< 2,5\text{g/dl}$ -koa
- b) Egoera patologiko bati, non gorputz-masaren indizea  $< 18$ -koa izaten den, edo/eta pisua idealarekiko  $< \%75$ ekoa, edo/eta albumina  $< 2,5\text{g/dl}$ -koa
- c) Egoera patologiko bati, non gorputz-masaren indizea  $< 18$ -koa izaten den, edo/eta pisua idealarekiko  $< \%70$ ekoa, edo/eta albumina  $< 2,5\text{g/dl}$ -koa
- d) Egoera patologiko bati, non gorputz-masaren indizea  $< 18$ -koa izaten den, edo/eta pisua idealarekiko  $< \%70$ ekoa, edo/eta albumina  $< 2\text{g/dl}$ -koa

**41. Gibel-transplanteetako infekzio birikoetan, ondokoen artean zein ez da egia?**

- a) Erreaktibazioagatiko infekzioak izaten dira
- b) Pronostiko okerragoa izaten dute paziente osasuntsuetan
- c) Transplante ondoko lehen hilabetean oso ohikoa izaten da zitomegalobirusagatiko koriorretinitisa
- d) Organo seropositibo bat hartzen duten hartzaile seronegatiboek arrisku handia izaten dute zitomegalobirusagatiko gaixotasuna jasateko

**42. Formula enteralaren mota sailkatzerakoan, ondokoen artean bat besterik ez da zuzena:**

- a) Heste-funtzioa arriskuan badago, formula polimeriko bat erabiliko dugu
- b) Heste-funtzioa arriskuan ez badago, baina proteinen eskakizunak gora egin badu, formula oligomonomeriko hiperproteiko bat erabiliko dugu.
- c) Heste-funtzioa arriskuan ez badago, eta kalorien eskakizunak gora egin ez badu, dieta oligomonomeriko hipokaloriko bat erabiliko dugu
- d) Heste-funtzioa arriskuan ez badago, baina kalorien eskakizunak gora egin badu, eta ezin badugu emandako bolumena handitu, dieta polimeriko hiperkaloriko bat erabiliko dugu

**43. Etxeko Nutrizio Enterala:**

- a) Infusio gastrico batean, teorian, nagusiek 350 ml formula toleratu dezakete, 10 minutuan emana
- b) Sunda nasoenterikoak egokiak izaten dira erdi-mailako iraupenaldietan, 4 eta 10 aste artean
- c) Etxean tantakako grabitatorioa izaten da metodorik onena
- d) Infusio-ponpak infusio-pauta oso zehatza behar duten pazienteekin bakarrik erabili behar dira, gastrostomiak dituztenekin, batez ere

**44. Aukera ezazu baieztapen zuzena:**

- a) Penizilina, berrosatu eta gero, ez da egonkorra 24 orduz, giroko tenperaturan
- b) Imipenema, berrosatu eta gero, ez da egonkorra 24 orduz, giroko tenperaturan
- c) Kloxacilina, berrosatu eta gero, ez da egonkorra 24 orduz, giroko tenperaturan
- d) Zeftazidima, berrosatu eta gero, ez da egonkorra 24 orduz, giroko tenperaturan

**45. Nutrizio Parenteral Totala bakarrik ematen bada edo esklusioa bada:**

- a) Likidoen behar basalak bete beharko ditu, hau da, 18 eta 60 urte arteko gizabanakoentzat: 30 mg/Kg/eguneko
- b) Oro ohar, paziente nagusiei dagokienez, ekarpen energetikoak 40-55 Kcal/Kg/eguneko bitartean egongo dira.
- c) Karbono-hidratoak energia-iturrien %50-60 **izan behar dira**
- d) Lipidoak energia-iturrien %15-40 **izan behar dira**

**46. Giltzadura-protetikoen infekzio kroniko baten aurkako tratamendu antibiotikoen emaitza onak ematen dituzten antibiotikoen artean bat hartu behar du beti barne:**

- a) Aminoglukosidoak
- b) Zefalosporinak
- c) Glikopeptidoak
- d) Kotrimoxazola

**47. Nutrizio parenterala daraman paziente baten kasuan, kontrol kliniko eta analitikoek ondokoak hartu behar dituzte barne, hauetako bat izan ezik:**

- a) Biokimika orokorra: glukosa, urea, kreatinina, albumina, triglizeridoak
- b) Gibel-funtzioaren probak: ALT, AST, GGT, FA, Bilirrubina
- c) Abdomeneko ekografia: normala baldin bada, urtero egin
- d) Hezurretako dentsitometria: normala baldin bada, 2 urtetik behin egin

**48. Interes nutrizionala duten ondoko proteina plasmatikoen artean, erantzun bat besterik ez da zuzena:**

- a) Albuminak 20 eguneko biziraupena dauka bataz beste, eta proteinen eskasia akutua adierazten du
- b) Prealbuminak 48 orduko biziraupena dauka bataz beste, eta bizpahiru egunean erantzuten dio hala kalorien nola proteinen ingesta eskasari
- c) Erretinola garraiatzen duen proteinak 15 eguneko biziraupena dauka bataz beste, eta proteinen eta kalorien gabetasuna adierazten du
- d) Transferrinak 10 eguneko biziraupena dauka bataz beste, eta gehiagotu egiten da gaixotasun hepatikoan eta síndrome nefrotikoan

**49. Estreptokoko agalaktiae-k eragindako belauneko protesi baten infekzio akutu hematogeno baten aurrean, ondokoan artean zein tratamendu dago kontraindikaturik?**

- a) Linezolida
- b) Klindamizina
- c) Kotrimoxazola
- d) Zeftriaxona

**50. Zelulitisari buruz ari garela, ondoko baieztapenen artean bat egia da:**

- a) Patogeno ohikoenak A, B, C, G eta F taldeko estreptokoko B hemolitikoa eta estafilokoko aureusa dira
- b) Zelulitisaren kasuan, erisipelan ez bezala, lesioa goraturik dago, eta garbi ikusten da erasana dagoen partearen eta ez dagoenaren arteko muga
- c) Hemokultiboa + da kasuen %10 eta %20 artean
- d) Tratamenduak kontuan hartu behar du SARM prebalentzia >%35ekoa dela Euskadin

**51. Anpizilina 12 gr/eguneko tratamendua behar duen paziente bati bere etxean ematen zaio ponpa elektronikoaren bitartez. Zein da gehienezko kontzentrazioa?**

- a) 20 mg/ml
- b) 30 mg/ml
- c) 10 mg/ml
- d) 40 mg/ml

**52. Zein Gram(-) bakterioak sortarazten ditu abzesuak maizenik paziente immunodeprimituen artean?**

- a) *Listeria monocitogenes*
- b) *Rodococcus equi*
- c) *Nocardia* sp.
- d) *Salmonella* sp.

**53. 53.- Elikagai hauen artean zeinek handitzen du beheko hestegorriko esfinterraren presioa?**

- a) Koipeak
- b) Proteinak
- c) Karbono-hidratoak
- d) Txokolateak

**54. I eta II motako herpes sinpleari buruz ari garela:**

- a) II motakoak I motakoak baino berraktibatze gehiago dauzka
- b) Ganziklobir farmakoa bietan dago indikatuta
- c) Ez bata ez besteak ez dio zidofobir farmakoari erantzuten
- d) Ez bata ez besteak ez dio foskarnet farmakoari erantzuten

**55. Aldakako protesiaren infekzioa daukan pazienteak 9,5gr/dl-ko hemoglobina, 0,9-ko kreatinina, 34-ko GPTa ematen du analitikan. Gutxieneko tratamendua luzea izaten da; (>3 hilabete). Mikroorganismoaren sentsibilitatea onartuta, ondoko sendagaien artean zein ez litzateke izango lehen hautaketa konbinazio terapeutikoan?**

- a) Teikoplanina
- b) Bankomizina
- c) Errifanpizina
- d) Linezolida

**56. Digestio-kirurgiaren ebakuntza ostean beherakoak saihesteko, kontuan izan behar da uraren xurgatzea ondoko hauetako batean gertatzen dela. Non?**

- a) Duodenoan
- b) Jeiunoan
- c) Ileonean
- d) Kolonean

**57. Pseudomona aeruginosa bakterioak eragindako infekzio baten aurrean, hauen arteko zein antibiotikok ez dauka jarduera intrintsekorik?**

- a) Imipenema
- b) Ertapenema
- c) Meropenema
- d) Doripenema

**58. Ondokoen arteko zein faktorek zehazten du hobekien min onkologiko bat kontrolatzeko pronostikoa?**

- a) Analgesikoei ematen zaien erantzuna eta minaren intentsitatea
- b) Alkohol-adikzioaren historia eta minaren mekanismoa
- c) Alkohol-adikzioaren historia eta familiak aurre egiteko izan dezakeen gaitasuna
- d) Analgesikoei ematen zaien erantzuna eta familiak aurre egiteko izan dezakeen gaitasuna

**59. Ondokoen arteko zein farmako EZIN da bizkarrezur-bidetik eman?**

- a) Klonidina
- b) Zikonotidea
- c) Ketamina
- d) Baklofenoa

**60. Palliative Prognostic Index-ak (PPI) 3 eta 6 astera aurreikusten du biziraupena zenbait ebakidura-puntutarako. Adieraz ezazu ondokoen arteko zein parametro ebaluatzen duen:**

- a) Ahorakina
- b) Linfozito-kopurua
- c) Albumina-zifra
- d) Bilirrubina-zifra

**61. Zer neurtzen du Pfeiffer eskalak?**

- a) Sedazio-maila
- b) Balorazio funtzionala
- c) Egoera kognitiboa
- d) Ultzera-arriskua

**62. BGK (ICC) larrietan, zein arnas disfuntzio gerta liteke?**

- a) Kussmaul-en arnasketa
- b) Arnasketa azidotikoa
- c) Azaleko arnasketa
- d) Cheyne-Stokesen arnasketa

**63. Zein da hesteetako mugikortasunean alterazio gehien sortarazten dituen heste lodiko erauzketa segmentarioa?**

- a) Ondeste aurreko erauzketa
- b) Sigmoidektomia
- c) Ezkerreko hemikolektomia
- d) Eskuineko hemikolektomia

**64. ASPEN erakundearen arabera, zenbat denboraz eman beharko litzateke operazio aurreko euskarri nutrizionala?**

- a) 2 eta 5 egun artean
- b) 7 eta 10 egun artean
- c) 3 aste bete
- d) Pazientearen patologiaren arabera

**65. Digestio-hodian non xurgatzen da sodioa eraginkortasunik handienarekin?**

- a) Duodenoan
- b) Jeiunoan
- c) Ileonean
- d) Kolonean

**66. Hauen artean zein da baieztapen zuzena?**

- a) Aldez aurretik emandako jarraibideak kontuan hartuko dira kontraindikatuak gertatzen baldin badira bere patologiari begira
- b) Aurretiazko borondateen dokumentua aldatua, ordezkaturia edo baliogabetua gertatuko balitz, emandako azken dokumentuaren edukia hartuko litzateke kontuan
- c) Aurretiazko borondateen emaileak gaitasuna daukan artean, aurretiazko borondateen dokumentuan jasota dauden jarraibideak dira nagusi bere borondatearen aurrean
- d) Aurretiaz emandako jarraibideak kontuan hartuko dira ordenamendu juridikoaren aurka doazenean

**67. Exenatideari dagokionez, ondoko guztia egia da, honako puntu bat izan ezik**

- a) I eta II motako Diabetes Mellitus daukaten pazienteentzat indikatuta dago
- b) Egunean bi aldiz ematen da
- c) Goragaleak eta gorakoak eragiten ditu
- d) Gizakiaren inkretinaren antzeko eragina dauka



**68. Elikagai hauen artean zeinek ez dauka zuntz askorik?**

- a) Olibak
- b) Bananak
- c) Urazak edo letxugak
- d) Porruak

**69. Lawton-Brody eskalak zer neurtzen du? :**

- a) Oinarrizko jarduerak egiteko gaitasuna
- b) Jarduera instrumentalak egiteko gaitasuna
- c) Egoera kognitiboa
- d) Depresiorik ote dagoen

**70. Zein aldaketa funtzional, adinari lotua, ez da maila endokrinoan gertatzen?**

- a) Testosterona gutxitzea
- b) Hormona antidiuretikoak gutxitzea
- c) Errenina gutxitzea
- d) Aldosterona gutxitzea

**71. Farmako hauen artean zeinek ez dauka eragin antikolinergikorik?**

- a) Klorpromazina
- b) Haloperidol
- c) Sertralina
- d) Klozapina.

**72. Pneumokokoaren txertaketari buruz ari garela, ondoko baieztapenen artean zein da faltsua?**

- a) 23 serotipoko polisakarido kapsularra daukan txertoa da
- b) Dosi bakarria ematen da edo 5 urtetik aurrera errepikatu egiten da
- c) %70eko babesak ematen du
- d) Ezin da eman gripearen aurkako txertoarekin batera

**73. Indakaterolari buruz ari garela, egia da...**

- a) 12 orduz behin eman behar dela
- b) Ezin dela eman asma dagoenean
- c) Edoskitzaroan erabili daitekeela
- d) AMP ziklikoa gutxitzen duela

**74. Eman dezagun 84 urteko gizonezko bat, bihotz-gutxiegitasun larria daukana anasarkan, eta tratamendu espezifiko intentsiboa daramana. Gasometriak errepikatuta pH >7.50 ematen badu, zer izan liteke?**

- a) Hipoaldosteronismoa
- b) Hiperpotasemia
- c) Hiper magnesemia
- d) Diuretikoak

**75. Ondoko faktoreak beherakoaren eragile izan litezke, hauetako bat izan ezik:**

- a) Diabetesa
- b) Hiperkaltzemia
- c) Hipertiroidismoa
- d) Heste narritagarriaren sindromea

**76. 70 urteko paziente batek dibertikulitisa badauka, koerikortasunik (komorbilitatea) gabe, eta 6 hilabeteen bigarren episodio bat gertatzen bazaio, zein tratamendu aukeratu behar da?**

- a) Piperazilina-tazobaktama
- b) Zeftriaxona eta metronidazola
- c) Ertapenema
- d) Ertapenema + amikazina

**77. Hepatitis aktibo kronikoa ondokoen arteko bat dagoelako bereizten da hepatitis kroniko iraunkorretik**

- a) Seinale estrahepatikoak
- b) Hepatitis B serikoaren antigeno zentralaren antigorputzak
- c) Muskulu lisoaren aurkako aintigorputz-kontzentrazio altua
- d) Gibelaren ezaugarri histologikoak

**78. Eman dezagun 24 urteko paziente bat ospitaleratu dutela ZIUn (Zainketa Intentsiboetako Unitatea), eta egun batean edo bitan obnubilazioa eta ikterizia dauzkala. Ez dago beste datu klinikorik. Laborategiko azterketetan ondoko balioak atera dira: bilirrubina totala, 7,2 mg/100ml; zuzeneko bilirrubina, 4mg/100ml; GOT: 1.478U/l; GPT: 1.056U/l; fosfatasa alkalinoa 132u/l; INR; 3,1; albumina, 3,6g/100ml.**

**Ondoko probak aholkatuta daude, hauetako bat izan ezik:**

- a) Balorazio toxikologikoa
- b) Zeruloplasmina
- c) Atzeranzko kolangiopankreatografia endoskopikoa
- d) Antigorputz antinuklearrak.

**79. Ondoko guztiak Nutrizio Enteralaren kontraindikazioak dira, hauetako bat izan ezik:**

- a) Ileo paralitikoa
- b) Edozein pankreatitis mota akutu larri, hemorragiko, nekrotizatzaile, hasieran dagoenean
- c) Hiperemesis iraunkorra farmako bidez kontrolatu gabea
- d) Edozein fistula-mota heste mehearen maila ertainean

**80. Kaiser-en piramidearen arabera, zeinak paziente kronikoaren konplexotasun-motaren arabera interbentzio-mailak identifikatzen dituen, Gaixotasunaren Kudeaketa ondoko honi aplikatu behar zaio:**

- a) Populazioari, oro har
- b) Paziente kronikoei
- c) Arrisku handiko pazienteei
- d) Konplexutasun handiko pazienteei

**81. Ondoko minbizi motek oro har, gibelaren metastasia eragiten dute, batek izan ezik:**

- a) Titi-minbizia
- b) Koloneko minbizia
- c) Biriketako minbizia
- d) Prostatako minbizia

**82. Euskadin, 2005-2008 aldian, Arreta Soziosanitarioa garatzeko Plan Estrategikoan, ondoko kolektibo guztiak ziren, hitzez hitz, arreta sanitarioa jasotzeko xede posible, bat izan ezik. Zein?**

- a) Tratu txarrak jaso dituzten emakumeak
- b) Desgaitasuna daukaten pertsonak
- c) Mendekotasuna daukaten pertsona zaharrak
- d) Gaixotasun terminalak daukaten pertsonak

**83. “Arau orokor gisa, zauriak serum edo suero fisiologikoz, ur destilatuz edo edateko ona den urez (txorrotakoa) garbitu behar dira”. Gomendio honek zein ebidentzia-gradu dauka Andaluziako Osasun Zerbitzuaren ultzerak prebenitzeko eta tratatzeko Praktika Klinikorako Gidaren arabera?**

- a) Oso baxua
- b) Moderatua
- c) Baxua
- d) Altua

**84. Antibiotiko hauen artean zein ez da bakterizida?**

- a) Linezolida
- b) Bankomizina
- c) Daptomizina
- d) Tikarzilina.

**85. Eman dezagun 79 urteko emakumezko bat, koledokolitiasiagatiko atzeranzko kolangiopankeatografia endoskopikoa egin zaiona. 24 orduara sukarra dauka eta mina eskuineko hipokondrioan eta epigastrioan, ikterizia-iraunkorrarekin batera. Kolangitis sekundarioa diagnostikatzen zaio. Zein germeni egin beharko litzaioke aurre tratamendua ezartzeko orduan?**

- a) Escherichia colia
- b) Enterokokoa
- c) Pseudomona aeruginosa
- d) Anaerobioak.

**86. Espainiako zein legetan agertzen dira lehen aldiz Aurretiazko Borondateak eta Bizi Testamentua terminoak?**

- a) Giza Eskubideei eta Biomedikuntzari buruzko Nazioarteko Hitzarmena (Oviedoko Hitzarmena)
- b) Espainiako Parlamentuaren 41/2002 Oinarrizko Legea, Pazientearen Autonomia arautzen duena
- c) Kataluniako Parlamentuaren 21/2000 Legea, Osasunari eta Pazientearen Autonomiari dagozkion Eskubideei buruzkoa
- d) Galiziako Parlamentuaren 3/2001 Legea, Baimen Informatua eta Pazienteen Historia Klinikoa arautzen dituen

**87. Hauetako zein ez dago kronikoen estrategia-eredu berria eraikitzeko Euskadin abiatutako 14 Egitasmo Estrategikoen artean?**

- a) Kronikotasuna Ikertzeko Zentroa sortzea
- b) Azpi-akutuen ospitaleak garatzea
- c) Arreta kliniko integratua
- d) Kudeaketa klinikoa: programa-kontratuari eustea

**88. Larruazalpeko gordailuei buruz ari garela, seinala ezazu zein den erantzun zuzena:**

- a) Odola atera behar bada, sistema garbitu behar da ondoko heparina-soluziozko 10 ml erabiliz: (ml 1 heparina sodiko %1ra + 9 ml gatz-soluzio)
- b) Kateterra butxatzen (obstruir) baldin bada, indikatuta dago estreptozinasa 10 U/ml-ko soluzioa ematea bolo bidez, behin bakarrik
- c) Kateterraren erabilera bukatutakoan, astero zigilatu behar da, berriro erabili arte
- d) Egunero erabiltzen badira, ez da beharrezkoa heparinizatzea